

Familia agurgarriak:

Jakingo duzueenez, irailaren 6an Hezkuntza Sailak honako hau erabaki zuen: *"Osasun-agintariek uste badute arrisku epidemiologikoaren egoerak horretarako aukera ematen duela eta Hezkuntza Sailarekin hala adosten bada, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek eskolaz kanpoko jarduerak eskainiko dituzte, astean lau arratsaldez, irakasleek artatuta".*

Egoera berri hori kontuan hartuta, honako hau jakinarazten dizuegu:

### **ESKOLA-EGUNA**

Ikasleek orain arte izan dugun eskola-jardunaldi bera bete beharko dute nahitaez, 9: 00etatik 14:00etara (sarrerak eta irteerak mailakatuta).

### **JANTOKI-ZERBITZUA**

Zerbitzua orain arte bezala mantenduko da, jantokiko bi txandarekin, bigarrena 15:40an amaituz. Zerbitzua amaitu ondoren, hala nahi duten ikasleak etxera joan ahal izango dira.

### **GARRAIO-ZERBITZUA**

Eskola-garraioa 16:30ean aterako da astelehenetik ostegunera eta 15:45ean ostiraletan.

Garraiatutako ikasleen familiek, eskolaz kanpoko jardueretara geratu nahi ez badute, 14:00etan edo jantoki-zerbitzua amaitzean jaso beharko dituzte (15:40).

Garraio zerbitzua jantoki zerbitzua ondoren mantentzeko aukera bakarra linearen erabiltzaile guztien adostasuna lortzea da.

### **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

Interesa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako familiek 15:40tik 16:30era luzatu ahal izango dute lanaldia jantoki-zerbitzuaren ondoren eskainiko diren jarduerekin.

Eskura ditugun baliabideek eta bete behar ditugun segurtasun-neurriek baldintzatu eta mugatu egiten dituzte eskain ditzakegun jarduerak; horregatik, hainbat jarduera eskainiko dira:

jokoa, irakurketa, eskolako lanak egitea.

Jarduera hauek astelehenetik ostegunera eskainiko dira. Ostiraletan ez da jarduerarik eskainiko.

Jarduera horietan izena ematen duten ikasleek sektore bereko ikasleekin partekatuko dute gela (talde, maila, zikloa), eta gehienez 25 ikasleko taldeak osatuko dituzte; horrela, arratsaldeko talde bakoitza hainbat talde egonkorrek osatuko dute. Talde egonkor desberdinetako ikasleen arteko distantzia 1,5 m-koa izango da gutxienez.

<b>ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK 15:40-16:30</b>	<b>ASTELEHENA</b>	<b>ASTEARTEA</b>	<b>ASTEAZKENA</b>	<b>OSTEGUNA</b>
<b>1. Sektorea HAUR HEZKUNTZA D</b>	<b>PATIOAN JOKOA GELAN LUDOTEKA</b>			
<b>2. Sektorea HAUR HEZKUNTZA AG-PAI</b>				
<b>3. Sektorea LH 1. eta 2.D</b>	<b>GELAN JARDUERAK (Irakurketa, mahai jokoak) PATIOAN JOKOA</b>			
<b>4. Sektorea LH 1. eta 2.AG-PAI</b>				
<b>5. Sektorea LH 3. eta 4.D</b>	<b>GELAN JARDUERAK (Etixerako lanak, irakurketa) PATIOAN JOKOA</b>			
<b>6. Sektorea LH 3. eta 4.AG-PAI</b>				
<b>7. Sektorea LH 5. eta 6.D</b>	<b>GELAN JARDUERAK (Etixerako lanak/ Ikasi, irakurketa) PATIOAN JOKOA</b>			
<b>8. Sektorea LH 5. eta 6.AG-PAI</b>				
<b>* Jarduerak eta espazioak egunero eta astero txandakatuko dira</b>				

**Jarduera horiek borondatezkoak direnez ikasleentzat**, plazen eskaria eskaintza baino handiagoa bada, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio, protokoloak ezartzen duen bezala:

- 1.- *Garraio-eskubidea duten ikasleak*
  - 2.- *Ekonomikoki egoera ahulean dauden familietako ikasleak.*
  - 3.- *Guraso bakarreko familietako ikasleak, baldin eta lan-arrazoiengatik justifikatzen badute ordutegi horretan ezin dutela seme-alaben ardura hartu.*
  4. - *Ordutegi horretan seme-alaben ardura hartzeko ezintasuna justifikatzen duten gurasoak dituzten ikasleak.*
  - 5.- *Haur Hezkuntzako ikasleak.*
  - 6.- *Gainerako ikasleak, adin-tartearen arabera ordenatuta, txikienetik handienera.*
- \*Nolanahi ere, plazen esleipenean kontuan hartuko da, neba-arreben kasuan, adingabea onartzen denean, zuzenean sortzen duela zentro bereko neba-arrebak edo neba-arreba zaharrenak ere izateko eskubidea."*

### **IZENA EMATEA (Eskolaz kanpoko jardueretan interesa duten familientzat bakarrik)**

Hain salbuespenezko egoera honetan zerbitzu hau antolatzeko hain denbora gutxi izanik, jarduera horien antolaketa egokiena egin ahal izateko eta behar duten familiek zerbitzu hori eskura izan dezaten, ezinbestekoa da arratsaldean zenbat ikasle izango ditugun jakitea.

**Eskolaz kanpoko eskoletan izena eman ahal izateko, seme-alaba bakoitzeko inprimaki bat bete eta bidali behar duzue. Dokumentu honen amaieran daukazuen estekaren bidez eskura dezakezue inprimaki hori.**

**Bidaltzeko azken eguna irailaren 27a da, astelehena, 12:00ak arte. Ez da epez kanpoko inskripziorik onartuko.**

Inprimaki hau betetzean, koherentziaz eta erantzukizunez betetzeko eskatzen dizuegu; izan ere, gure eskaintza zehatza jasotzen ditugun datuen arabera diseinatuko da, eta datu horien desbideratzea garrantzitsua bada, lehen aipatutako araudiak ezartzen duen lehentasun-ordena aplikatu beharko dugu.

**[ESKOLAZ KANPOKO JARDUETARAKO IZEN-EMATEAREN ESTEKA](#)**